

EUROPA HIZTEGIA

1983.ean *Sinonimoen Hiztegia* egin genuenetik, hiztegegintzan ihardun dugu, dagoeneko Adorez saileko sei liburu argitaratu ditugularik. Oraingoan, sail honen lankideetariko bi *KARMEL* aldizkariaren idazle ere bagarenez gero, egun gutxi barru argia ikusiko duen *Europa Hiztegia* liburuaz arituko natzaizu labur-labur. Hau izango da gure liburu guztietarik osoena, aberatsena.

Gure helburuak nahiko ezagunak dira: hiztegi orokor oinarrizkoak egin nahi izan ditugu alde batetik, baina bestetik eskola-hiztegi izateko egokiturik. Hitz-sarreren zerrendak kontu handiz osatu ditugu, hitzik erabilienei leku eginik, bahe estua erabiliz. Gero, beharrezkoenak, gehien erabiliak ziurtatu ondoren, apurka-apurka gehiagori sarrera emanez joan gara.

Euskara irakasteko metodoetan erabilitako lexikoa, Euskaltzaindiak ateratako 8 urte arteko hiztegia, maiztasun hiztegia, liturgiako eliz liburuetakoa, Elizen Biblia eta beste material batzuk erabili genituen oinarrizko zerrendak osatzeko.

Gero, hiztegirik erabilienak: Azkuerena, *Hiztegia 2000...* arakatu genituen, beharrezkoenak eta egokienak generitzenak hautatuz.

Azken aldi honetan, Akesoloren hiztegiaren 9 liburukiak goitik behera aztertu ditugu; azkenez, eskoletako testu-liburuekin lan handia egin dugu. Ia 200 eskola-liburu hustu ditugu. Hori burutu ondoren, gaztelaniaz eginik zegoen ikerlan bat eskuratu genuen: eskolako aro guztietan, adinez adin sailkaturik dagoen beharrezko kontzeptuen zerrenda. Gero, kontzeptu horiek euskaraz adierazteko hitzik egokienak bilatzera jo genuen. Horrela, hiztegi honek ia 27.000 sarrera izango ditu.

Hitz bat hiztegian sartu ala ez, haren erabilera, hedadura eta, azkenik, egokitasuna kontutan izanik erabakitzen da. Orohar, Euskal Herri osoan sustraituen dauden hitzei eta euskalkietan usu erabiliak direnei lehentasuna ematen ahalegindu gara. Hiztegi honetan, bestalde, era bereziz izan ditugu kontutan arrazoirik gabe zokoratuak diren euskalkien aberastasunak, beti ere, batuak damaigun ikuspegi nazionalari atxikiz.

Gehien bat eskoletan erabiltzeko liburua denez gero, hitzen formak ondo zaintzeko ardura izan dugu, aldakien artean hedatuenak hobetsiz eta formarik egokienak indartuz.

Adorez saileko 6. liburu honek beste gauza asko ere baditu, kopuruaz gainera, aurreko hiztegiek ez dituztenak: adiera berriak ugari, Akesoloren hiztegia, Mitxelenaren *Orotariko Euskal Hiztegia*, Ibon Sarasolaren *Hauta-lanerako Euskal Hiztegia* (bi hauetatik argitaraturik daudenak) goitik behera arakatu baititugu; hitzen kategoria gramatikalak, latinetik eta grekotik datozen maileguen etimologiak, landare eta animalien zientzi izenak eta abar ere sartu ditugu. Irakaskuntzako lexikoa moldatzeko UZEIren hiztegiak sakonki aztertu ditugu.

Definizioak, al bait argien eta laburren, euskara txukun eta errazean taiutzen ahalegindu gara. Hitzen erabilera, adibideen bitartez edo kako artean ezartzen diren azalpenen bitartez argitzen da. Gehienetan, sinonimoak datoz, definizioen osagarri. Kasu batzuetan, argazki eta irudiak ere bai.


LUIS BARAIAZARRA



EUROPA HIZTEGIA

ESKOLA BERRIRAKO A

ADOREZ 6
IRUDIZ HORNITUA



Zailtasunen artean, aldakiak ditugu. Formarik egokiena hautatzea ez da beti erraza izaten. Ortografian ere sortzen dira zailtasunak. Badaude euskarak ongi bereganatu gabe dituen hitzak ere, baina maiztasun handikoak izanik, behar-beharrezkoak direnak; horietan ere zalantzak sortzen dira, jatorrizko ortografian ala euskarazkora egokiturik idatzi behar diren. Gero bidea eginez, bat-batean sortzen diren zailtasunak. Azken batez, hiztegegileak ia dena mende eta kontrolpean izan behar du; hitzen batzuk aldatzeak nahiz berriak sartzeak, haiekin zerikusia duten guztiak, sinonimoak eta abar ere aldatzea, sartzea... eskatzen baitu. Horrela egin ezik, desegokitasunak sortzen dira.

Beste aldetik, orain arteko hiztegi handietan euskararen ahozko eta literaturazko altxorra nahiko ondo jasorik dago. Baina hizkuntza, zorionez, gauza bizia da eta aldatuz doa eta hiztegegileok hor dugu aupada latza: oraingo tresna, ekoizkin eta gauza askoren izenak finkatu beharra; nekazari-bizitzakoez gain, hiri-bizitzako hainbat eta hainbat gauza eta iharduefaren izenak behar ditugu. Hori finkatzea lortu behar genduke erdararen mende gelditu gabe.

Hona, irakurle, gure ahaleginaren emaitza. Zuri ere, liburuaren hitzaurrean bezala, eskumenean izan dezazun gonbidapena eginez amaitu nahi nuke. Eskuartearen erabiliaren erabiliz, belztua, pixka bat zaharkitua gerta dadinean, hizkuntza arloan lagungarri eta gidari on duzun seinale.

Luis Baraiazarra